

# POLITIKA OROKORRARI BURUZKO URTEKO ADIERAZPENA

2019-10-31

## **1.- Hiriaren egoeraren eta eboluzioaren hasierako analisisia.**

Politika orokorrari buruzko urtezko adierazpena egiterakoan, uste dut beharrezkoa dela gure Hiriak duen egoera deskribatzen duten adierazle nagusiei erreparatzea, eta baita ere azken urteetan bizi dugun bilakaera ikustea eta aztertzea.

2018ko erroldak eskaintzen digun azken datuari erreparatzen baldin badiogu, Donostiak 187.418 biztanle dauzka. Esan dezakegu, azken urteetan halako geldialdia izan ondoren, eboluzioak gorakako bidea hartu duela, nahiz eta hazkundera neurritzkoa den.

Gure Hiriaren biztanlegoaren zahartze prozesuak ere aurrera darrai, eta horrek garbi adierazten digu zahartze prozesuak suposatzen duen erronkaren aurrean lanean jarraitu beharra daukagula, zalantzarik gabe.

Zahartze prozesu horrekin batera, adierazgarria den beste fenomenoaren ematen ari da une honetan; alegia, jatorriz atzerritarra den biztanlegoaren hazkundera. 2017a eta 2018a alderatzen baldin baditugu, argi ikusiko dugu fenomeno hau dela Hiriaren biztanle kopuruaren hazkundera posible egiten duena. Urte batetik bestera %8,9 hazi da jaiotzaz atzerritarrak diren donostiarren kopurua. Hazkunde horrek, jatorriz bertakoak diren biztanle kopuruaren beherakada konpentsatzeaz gain, Donostiak biztanle kopuruan gora egitea dakar.

Bigarren datu honek osatzen du daramagun eboluzioaren argazkia: Generazio errelebu nahikorik ez duen Hirian, errelebu hori atzerritarrek egiten dute posible. Eta horrek ere, etorkizunera begira beste lan ildo argi bat markatzen du: Integrazioarena. Seguru nago gainera, hu-

rrengo urteetan fenomeno hau azkartu egingo dela, eta honek, Hiri gisa, modu egokian erantzuteko prestatzera eramán behar gaitu.

Jarduera ekonomikoari erreparatzen badiogu, langabeziak behera egi-ten jarraitzen du gure Hirian, gaur egun %8,2ko langabezi tasa dauka- gu, Gipuzkoakoa baino %0,4 baxuagoa eta Erkidegokoa baino puntu bat baxuagoa. Gainera, Gizarte Segurantzak dituen afiliatuen kopurua momentu honetan azken hamar urteetako altuena da gure Hirian. Ez nituzke datuok erabili nahiko halako mezu “triumfalista” bat emateko. Egia da onak direla, batez ere, enplegua galtzen genuen garaiarekin alderatzen baditugu, baina egia da ere analisi zorrotzago bat egin ez- kero, hainbat erronka azaltzen direla gure begien aurrean: Enplegua- ren behin-behinekotasuna, gazteen eta emakumeen artean nabarme- nagoa dena eta enpleguaren kalitatea. Aspektu horietan lan egiten ja- rraitu beharra daukagu, zalantzarik gabe.

Egia da ere, azken urteotan mugagabeko kontratuak hazten ari direla, nahiz eta kontratu berri gehienak behin behinekoak diren.

Enpleguari dagokionean, erabat azpimarratzekoa den beste datu bat da langabezian dauden pertsonen erdia baino gehiago 45 urtetik gora- koak direla, eta nahiz eta segmentu horretan ere langabeziak behera egin, beste segmentuetan baino gehiago kostatzen ari da behera egi- tea. Zalantzarik gabe, horrek adierazten digu enplegu politiketan es- fortzu berezia non egiten jarraitu behar dugun.

Zerbitzuen atala da dudarik gabe gure Hirian aberastasun gehien sor- tzen duen atala. Zerbitzu Hiri gara beraz, eta nire ustez, hori oso kontutan hartu beharreko gauza da Hiri diseinatzeko orduan. Zer esanik ez irisgarritasunaren ikuspegitik.

Garrantzitsuak diren beste hainbat datu ere aipatu nahiko nituzke, gai- netik besterik ez bada, horien bilakaerak Hiriaren norabidea adieraz- ten duten heinean. Hiriak duen formazio maila oso altua izaten jarrai- tzen du, gainontzeko Euskal Hiriburuekin alderatuta nabarmen altua- goa. Testuinguru horretan gainera Donostian I+Gra zuzendutako in- bertsioak hazten jarraitzen dute, horretan ere Erkidegoko portzentairik

altuena daukagu. 5.000 pertsona baina gehiago dauzkagu esparru honetan lanean, urtero hazten doan kopurua da hau gainera.

Gizarte arloan, aipagarria da gizarte laguntza ekonomikoen eskaerak behera egiten jarraitzen dutela, eta aldiz etxez etxeko laguntza eskariak gora. Badirudi beraz krisi urte gogorrenen ondorioek behera egiten jarraitzen dutela, baina oso kontutan hartu beharra dago egoera larrian dauden pertsona askoren egoera “kronifikatu” egin dela, eta horrek beste erronka bat jartzen du gure begien aurrean.

Etxez etxeko laguntza eskariek gora egiteak aldiz, zerikusi zuzena dauka zahartze prozesuarekin, datu honek etorkizunari begira gogoe-tarako beste gai bat jartzen du mahai gainean.

## **2.- 2030 estrategiari buruzko gogoeta.**

Hiriaren egoraren berri ematen dizkiguten hainbat adierazle aipatu ondoren, eta adierazle horiek erantzuna eskatzen duten puntuak jartzen dizkigutela kontutan izanik, legealdi honetan garrantzitsua izango den prozesu bati buruzko aipamen berezia egin nahiko nuke: Hiri gisa 2030 estrategia finkatzeko prozesuaz ari naiz. Asteartean eratu genuen Legealdi honetan zehar partehartze tresna gisa lagungarri izango zaigun Gizarte Kontseilua. Presidente berria Daniel Zulaika aukeratu izan zen eta Presidenteorde Pilar Lekuona. Beraien eskutik eta Batzorde Iraunkor berriaren bultzadaz prozesu honi ekingo diogu legealdi honetan.

Aurreko legealdian diagnosis egin ondoren, hurrengo urteetarako estrategia finkatzea dagokigu orain beraz, Hirian protagonista diren eragileekin batera egingo den lana da hau, indar guztiak norabide berdinean jartzeko asmoz. Azpimarratu nahiko nuke prozesu honek berebiziko garrantzia izango duela, asmatzeko daukagun gaitasunaren araberakoa izango baita etorkizunean irudikatzen dugun Hiria lortzeko izango dugun arrakasta. Eta zalantzarik gabe, aukera aparta eskainiko digu erakunde eta eragileen artean indarrak norabide berean lerrokatzeko.

Aurreko legealdian egindako gogoeta oinarri hartuaz ekingo diogu prozesu honi, eta horregatik, 2020 estrategiaren eguneratzea egiterakoan ezarri genuen irudi bateratua ekarri nahiko nuke gaur hona, gogoeta honen abiapuntu gisa.

Porque creo que es, sin duda, un punto de vista compartido sobre la Ciudad que todos buscamos:

«Una Donostia donde la ciudadanía se siente orgullosa por sus valores expresados en una sociedad cohesionada, inclusiva e implicada (que potencia los valores comunitarios, la igualdad, la accesibilidad universal, integradora, solidaria hacia dentro y hacia fuera), así como por su labor a favor de una cultura de paz, que potencia la cultura como instrumento para impulsar la creatividad y la cohesión social.

Una ciudad abierta, acogedora, dinámica, diversa y cosmopolita; con carácter e identidad que ha sabido, al mismo tiempo, conservar y potenciar sus señas de identidad propias, donde destaca el impulso por la cultura vasca y el Euskera. Una ciudad con futuro, capaz de seducir, atraer y retener juventud y talento, así como facilitar las relaciones intergeneracionales, las redes familiares y comunitarias, donde merece la pena vivir y disfrutar.

Esta Donostia es también un modelo de sostenibilidad desde el punto de vista ambiental. Una ciudad competitiva, que lidera el territorio de Gipuzkoa, conectada con el resto de las ciudades vascas, la Eurociudad e integrada en Europa. Líder y referente internacional como modelo sostenible de turismo histórico basado en la autenticidad y la excelencia del destino y el equilibrio con la calidad de vida de sus habitantes.

Ha sabido generar, también, toda una economía ligada a la I+D+i como cabecera de la capacidad industrial del territorio de Gipuzkoa, habiéndose convertido en una referencia internacional en ciencia y tecnología, los servicios avanzados y en las actividades ligadas a la economía creativa.

En definitiva, una ciudad en la que cada persona pueda desarrollar su proyecto de vida en las mejores condiciones posibles (vivienda y trabajo dignos, ocio y cultura accesibles).

Dauzkagun balioetaz, indarguneetaz eta tresnetaz baliaturik, irudikatzen dugun Hiria lortzeko epe luzerako estrategia finkatzeari ekingo diogu orain Gizarte Kontseiluarekin elkarlanean.

Baina horrekin uztartuta, Udaletxetik gure ekimenaren ibilbide orria izango dena aipatu nahiko nuke orain:

### **3.- 2019-2023 Legealdirako Gobernu programaren aurkezpena:**

Aurreko legealdian lehengoz ekin zitzaion Udal honetan Gobernu Egitasmo bat idazteari eta aurkezteari. Hori egin genuenean argi adierazi nuen asmoa zela etorkizunean ere gauzak egiteko modu berri hori Udalean finkatuta geratzea. Eta horixe egin dugu legealdi berriaren hasiera honetan.

Udal Hauteskundeetan hiritarrek hartu dute hitza. Maiatzean izandako hauteskundeetan izandako parte-hartze altuarekin (%65,17), oniritzia eman diote azken urteotako gobernu-hitzarmenaren bidez lortutako egonkortasunari.

Sin duda, los resultados de las últimas elecciones municipales han mostrado el respaldo de la ciudadanía al acuerdo entre EAJ-PNV y PSE-EE. La suma de los votos obtenidos entre las dos formaciones representa el 53% de los votos emitidos el 26 de mayo, y 15 de los 27 concejales esta corporación. Estoy convencido, tal y como señalábamos cuando rubricamos el acuerdo de Gobierno entre ambos grupos, de que el acuerdo entre opciones diferentes para respaldar un gobierno municipal de mayoría en torno a un programa que afronte nuevos retos estratégicos, y de continuidad y culmine proyectos y planes iniciados en la legislatura anterior es la mejor opción para el progreso de Donostia.

Pero además, la elaboración de un Programa de Gobierno facilita la acción del Gobierno y permite un adecuado seguimiento del grado de cumplimiento de los compromisos adoptados por parte de toda la ciudadanía, y por supuesto también por parte de los componentes de esta corporación.

Egin berri dugun Gobernu Programa hau ibilbide orria izan nahi du, baina ibilbide orri irekia beti. Aldaketara irekia dagoen ibilbide orria, horrek adostasuna zabaltzeko balio dezakeen heinean, eta irekia da ere, egoerak aldakorrak direlako. Ezin ukatu dezakegu bizi dugun testuinguru orokorra zalantzaz josia dagoela, batzuetan kezka sortzen duten zalantzaz gainera. Dudarik gabe, horiek beti kontutan hartu beharrekoak izango dira. Geroz eta azkarrago dijoan mundu batetan bizi gara, eta horrek eskatzen digu malguak izatea.

Baina zeintzu dira Programa honetan marazten ditugun ardatz nagusiak?

a) “Hiri proiektuak”

Hemos denominado “Proyectos de Ciudad” a aquellos proyectos que tienen una especial relevancia a la hora de poder transformar nuestra Ciudad. Algunos de ellos están en ejecución, otros se iniciarán de forma inminente, y por otros tendremos que pelear durante esta próxima legislatura.

Trataré de mencionarlos agrupándolos en función de la materia:

Etxebizitzaren atalean: Garapen berriei ekitea Lorategi Hirian, Esnabiden, Illarran, Inpernuan, Aldakoenean, Antzietan eta Sarruetan.

Atal honetan ere, Txomin eneako bigarren fasea eta epe luzerago Loiolako Koartelen gaia lantzen jarraitu beharko dugu. Guzti horretarako ezinbestekoa da Madrilgo Gobernuaren egoera argitzea, eta hori,

Azaroaren 10etik aurrera modu batera edo bestera gertatzea espero dugu.

Eraldaketa urbanoaren eta mugikortasunaren atalean: Abiadura handiko trena eta Topoa errealitate bihurtzeko pausu berriak ikusiko ditugu. Jakin ba dakit, beste edozein esparrutan bezala, lanek eragozpenak ekarriko dizkigutela, baina hobetu nahi badugu, ezinbestekoak dira.

Últimamente hablamos mucho de las afecciones que las obras que tienen lugar en nuestra Ciudad provocan. Es una obviedad, pero son inevitables para poder mejorar nuestro sistema de movilidad. Si queremos cambiar, el cambio exige sacrificio, un sacrificio que se verá recompensado con la transformación radical de nuestro sistema de transporte y por lo tanto, con la mejora de la calidad de vida de todos los ciudadanos. Desde el Ayuntamiento venimos trabajando intensamente para que las afecciones sean las menores posibles, pero siendo conscientes de que es imposible que no se den. Pretender seguir funcionando igual con una calle menos, es simplemente imposible. Lo que desde luego tenemos absolutamente claro es que la prioridad, también durante las obras, va a ser el transporte público, con el que nos vamos a volcar para que las afecciones sean mínimas.

Pero además de la transformación del sistema de movilidad, hay transformaciones urbanas que queremos abordar en esta legislatura, algunas de ellas precisamente ligadas a proyectos de movilidad, otras no. En esta legislatura hay que abordar la definición y diseño del nuevo espacio que gana la Ciudad gracias a la desaparición de la playa de vías de Easo. Un espacio privilegiado que nos va a permitir “coser” mejor el centro y amara. Debemos ser capaces de avanzar en la definición y gestión de este espacio, de tal forma que podamos iniciar las actuaciones tan pronto desaparezcan los trenes de ese lugar.

Sagüesi behin betiko diseinua ematea, ideia lehiaketa bitartez, edo Kontxako Pasealekuaren eraldaketa nolakoa izan daitekeen definitzea

dira Hiriaren gune nagusienetan legealdi honetan izango ditugun lanak.

Mugikortasunari dagokionean ere, Hiri proiektu gisa jasotzen ditugu Autobus zerbitzuaren elektrifikazioa eta Intxaurren egin beharreko sarbide berria.

Kulturaren atalean: Egungo eraldaketari erantzuna ematera datorren Kulturetxe digitalaren sorkuntza izango da abian jarri nahi dugun proiektu berria. Literaktum indartuz Letren festibal izatera iritsi nahi dugu. Horretaz gain, artearen sorkuntzan erreferentzia bilakatzen gaituen Haizearen orraziaren birgaitzea eta mundura ezagutzera ematea, hala nola Ugarteko Itxasargiaren proiektua izango dira protagonistak.

Jarduera Ekonomikoaren atalean: Eskuzaitzeta, Talent House II, Bretxa berria eta Turismo bulego berria aipatu nahiko nituzke, ekonomia-aren garapenean landu nahi ditugun esparru ezberdinetan proiektu nagusiak direnak.

Iraunkortasunaren atalean: Mugikortasuna eraldatzeko proiektuek klima aldaketaren aurrean Hiriak duen konpromisoa ondo adierazten dute, baina horretaz gain, ondakinen gaiak ere apustuak egitea eskatzen digu, eta horregatik, plastikozko poltsak kentzeko plana abian jarri nahi dugu.

Kirolaren atalean: Aurrera dijoan Altzako Kiroldegia amaitzea dagokigu legealdi honetan, beharrezkoa den azpiegitura baina Hiriarentzat esfortzu handia suposatzen duena. 17 miloiko inbertsioa, gehiena Hiriak beregain hartua, eta hori, kutsatutako lurren tratamenduak eskatu duen esfortzua kontutan hartu gabe, Eta noski, legealdi honetan ere Anoetako instalazioak berritzeko bigarren faseari ekingo diogu.

Hiritarrendandik gertuago eta modu eraginkorrago batean jarduteko tresna gisa deszentralizazioaren aldeko apustua berretsi nahi dugu, ekialdeko Barrutiaren kontsolidazioa legealdi honetan bailatuz.



Y finalmente, me queda mencionar otros dos proyectos de Ciudad en los que queremos seguir trabajando intensamente en esta legislatura:

Por una parte el Plan Integral de la Parte Vieja. Durante la anterior legislatura hemos trabajado intensamente en la elaboración de un Plan que ahora queremos poner en marcha en todos sus aspectos y contenidos. Y lo queremos hacer porque consideramos que esta zona de la Ciudad merece especial atención, en primer lugar porque es obvio que soporta una gran presión de uso que incide sobre quienes la habitan, y eso nos exige planificar y actuar. Y en segundo lugar, porque creo que todos deseamos preservar un lugar clave que es muestra incomparable de nuestra identidad donostiarra.

Y finalmente, dentro de la firme apuesta que hace nuestra Ciudad en favor de los Derechos Humanos como instrumento fundamental de convivencia, queremos seguir trabajando por la memoria y la reparación de todas las víctimas del terrorismo y de la violencia.

“Hiri proiektu” deitu ditugun horiek, ardatz ezberdinetan gure Hirian burutzen ari den lanaren eta burutu nahi diren lanen adierazgarri dira, baina hona hemen legealdi honetan zehar guretzat funtsezkoak izango diren 10 ardatzak. Ardatz horietako bakoitzean helburu estrategikoak eta ekintzak zehaztu ditugu. Gaur hemen, horietako batzuetaz bakarrik aritzeko denbora hartuko dut.

**b) Kalitatezko enplegua eta garapen ekonomikoa:**

Ardatz hau erabat lehentasunekoa izaten jarraitzen du Udal Gobernu honen iritziz. Azken finean, donostiarrek eta gure Hirian bizitzea erabakitzen dutenek euren bizitza proiektua garatu ahal izateko ezinbesteko baldintza baita.

El Ayuntamiento, como institución, debe ser un agente activo en el fomento de la actividad económica, afianzando la ya existente y creando las condiciones para generar nuevos empleos consolidados en el municipio.

En ese sentido, nos marcamos como un claro objetivo promover el desarrollo económico centrado en las personas y en el talento. Y hacerlo además de modo que seamos capaces de generar oportunidades para todos. Oportunidades para las personas que, habiendo sido expulsadas del mercado de trabajo, se han convertido en parados de larga duración, oportunidades para que se produzca la plena integración en igualdad de condiciones de la mujer en el mercado de trabajo, y por supuesto, para nuestros jóvenes, para que puedan quedarse e iniciar su proyecto de vida en Donostia.

Y lo queremos hacer en aquellos sectores que son de futuro para nuestra Ciudad, aquellos en los que tenemos un alto potencial, como lo son la electromovilidad, la ciberseguridad, el sector bio-sanitario o la estrategia de Smart Cities.

En este contexto, el desarrollo de Eskusaitzeta representa una gran oportunidad para el futuro desarrollo económico de Donostia. Hemos invertido junto con el Gobierno Vasco muchos recursos en desarrollar este polígono, el más grande de Gipuzkoa, y en esta legislatura toca llenarlo de contenido, de un contenido centrado en esas actividades de futuro.

Eta guzti hori gure Hiriaren ekonomia garapenean funtsezkoak diren beste atalak ahaztu gabe:

Merkataritza, bertako merkataritzaren aldeko apustua eginaz,

Gastronomia, etorkizuneko estrategia hiriko eragileekin batera birformulatuz,

eta Turismoa, argi eta garbi Turismo iraunkorraren aldeko apustua eginaz.

### c) *Gizarte kohesioa*

Gizarte kohesioari ekiterakoan asko dira gizarte gisa esku artean dauzkagun erronkak, baina dudarik gabe, guztiek daukate elementu komun bat: Komunitatea eraikitzea. Dauzkagun erronkei aurre egin ahal izateko ezinbestekoa zaigu gure gizartean komunitatea sortzen duten ekimenak bultzatzea.

Horretarako tresna nagusienetakoa, zalantzarik gabe, “Donostia Lagunkoia” egitasmoa daukagu, baina ez bakarra. Hirian gizarte kohe-  
sioaren alde lan egiten duten elkarteekin elkarlana indartzea izan behar du beste helburuetako bat, beharrezkoak dituzten baliabideak eskainiaz, bai dirulanguntzen bidez eta baita euren lana burutzeko beharrezkoak dituzten lokalak eskainiaz.

Lehen mailako arreta zerbitzua hobetzen jarraituko dugu, eta gizarte bazterkeriari aurre hartzen eta arreta ematen jarraituko dugu. Baita ere familiei eskeintzen diegun arreta, hala nola indarkeria matxista pairatzen duten emakumeekiko arreta eta ahultasun egoeran dauden adinekoentzako arreta hobetzea jarri ditugu helburu.

En este apartado quisiera reafirmar un compromiso que viene de lejos en este Ayuntamiento, y que no conoce de signos políticos. Es el compromiso de blindar el gasto social, y por lo tanto de dar respuesta a las necesidades que haya que atender. Durante los cuatro años anteriores no se han recortado los recursos destinados a este fin, al contrario, se han incrementado. Y quiero manifestar que es voluntad de este Alcalde y de este Gobierno que en el futuro siga siendo así. Si en algún caso hay que apretarse el cinturón, lo haremos antes en otras áreas.

#### d) Etxebizitza eta Hirigintza

Gure Hirian bizi proiektua gauzatu ahal izateko etxebizitza eskuratzea ezinbesteko baldintza da. Eta hau, guztiok dakigu, ez da gauza erraza izan Donostian. Ez orain eta ezta iraganean ere. Gazteenek sufritzen

dituzte gehien horren eraginak, eta beraiek izan behar dira gure jarduren helburu nagusia.

Horregatik, garbi ikusten dugu hurrengo lau urte hauetan ezinbestekoa dela hirigintza garapen berriak sustatzea, higiezin parkeari etxebizitzak gehituz. Mota guztietakoak gainera: Babes ofizialekoak, tasatuak eta libreak.

Hori egiterakoan gainera, Hiria trinkotzea izango dugu helburu, eraikia dagoen Hiria aprobetxatuz.

Aurreko legealdian Etxebizitza Plana idazteari ekin genion, eta legealdi honetan, Etxebizitza Plan hori errealitate bilakatzea dagokigu, bertan jasotzen diren aurreikuspenak martxan jarriaz.

Horrekin batera, eta etorkizuneko Hiria diseinatzeko Plan Orokor berria idazteari ekingo diogu.

He oído en algunas intervenciones que han tenido lugar en este Pleno lo necesario que resulta redactar un nuevo Plan General que responda mejor a la realidad de nuestra Ciudad, y es cierto. Pero sinceramente creo que debemos ser capaces de redactar ese nuevo Plan General a la vez que llevamos a cabo actuaciones concretas en distintos ámbitos de la Ciudad. No creo que sea en este momento responsable dejar esas actuaciones a la espera de la redacción del nuevo Plan. Debemos compatibilizar ambas cosas, más aún cuando sabemos que la redacción de un nuevo Plan General es un proceso largo y laborioso.

Azkenik, Hirigintza eta arkitektura ondarearen babesa ere aipatu nahi dut. Guztiok dakigu epe laburrean tokatuko zaigula Hirigintza Ondarea eta Eraikia Babesteko Plan Bereziaren berrikuspen prozesuarekin amaitzea. Espero dut, berrikuspen honen bitartez, 2014ean onartutako Plan Berezia modu egokian eta zentzuzkoan eguneratzeko gai izatea. Funtsezkoak diren bi elementu uztartuaz: Eraikia dagoen Hiria modu egokian babestea etorkizuneko Hiria hipotekatu gabe. Une honetan daukagun arazorik katramilatsuenari irteera bilatzeko ere, Arte

Ederretako eraikinari hain zuzen ere, hori da bidea. Gure esfortzu guztia helburu horretara zuzendua daukagu eta zuzentzen jarraituko dugu, arrazoizko irtenbide egoki baten bila.

### e) Hiritar balioak eta Giza Eskubideak

Apostamos por seguir siendo una Ciudad comprometida con los valores y los Derechos Humanos. Nuestro reciente pasado no puede ni debe olvidarse, por lo que seguiremos promoviendo acciones encaminadas a afianzar la memoria de nuestra historia pasada y reciente, sobre las bases de la Justicia, la Verdad y la Reparación, teniendo en el centro de todas estas actuaciones a las víctimas de aquellos actos violentos ocurridos en nuestra Ciudad.

Giza Eskubideen alde egiten dugun apustu horren adierazgarri izango dira Eskura proiektuaren garapena eta Giza Eskubideen Zinemaldiaren Nazioarteratzea.

Memoria Historikoaren atalean, aurreko legealdian hasitako bideari jarraipena eman nahi diogu, orduan hasitako lanei jarraipena emanaz.

Baina horretaz gain, eta atal honen barruan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren aldeko apustua jarri nahi dugu lehen lerroan. Benetako berdintasuna lortzeko bidean jarriko gaituzten politika publikoak diseinatuaz eta udalaren politika eta ekimen guztietan genero ikuspegia txertatuaz.

Helburu horrekin, IV. Berdintasun Plana idazteari ekingo diogu legealdi honetan.

Udaletik ere biolentzia sexistaren aurka borrokatzen jarraitu nahi dugu. Punto kritikoak ezabatzen, autobusetan eskaripeko geldialdiak zabalduz, Udaltzaingoak eta Ertzaintzak egiten duten lana hobetuz, oro har formakuntza arloan esparru guztietan lan eginez. Beharrez-

koak diren kanpainak sustatzeaz gain, zailtasunen gaindituz, guztion arteko elkarlanean egin nahi dugu lan hau.

Balioen atal honetan ere, Hiri ireki eta anitz baten alde lanean jarraituko dugu, ezberdintasunak aberastu egiten gaituela jakinda, bizikidetzaren oinarria errespetua dela jakinda.

### f) Euskararen, kulturen, sorkuntzan eta aniztasunean erreferentea den Hiria

Euskarari buruz aritzerakoan, uste dut guztiok bat egiten dugula hurrengo urteetako erronka erabileran daukagula esaterakoan. 2020-2024rako Euskara Plan Orokorra diseinatzea eta abian jartzea tokatuko zaigu. Hau egiterakoan, zalantzarik gabe, gure Hirian erabilera sustatzeko helburua izango da kontutan hartu beharreko elementu nagusia.

Zinez uste dut azken urte hauetan jorratutako bidea egokia dela, eta hurrengo urteetan bide hori sakontzea eta areagotzea tokatuko zaigula. Hirian protagonista diren aktoreekin elkarlanean, eta Euskaraldiak izan duen arrakastak markatzen digun bidea jarraituaz.

Kultura dugu, dudarik gabe Hiriak erreferentzialtasunaren ikuspegitik egiten duen apustu nagusienetakoa. Hiri proiektu direnak aipatzera koan esandakoaz gain, uste dut arlo honetan hainbat zeregin ditugula Hiri gisa.

Kasu batzuetan partekatuak diren proiektuetan, Tabakaleraren, Zinemaldiaren edo Hamabostaldiaren kasuan adibidez. Tabakalera bereziki aipatu nahiko nuke, 2015ean ateak ireki zituenetik izan duen bilakaera eta garapenari esker, hazten joan den proiektua. Jadanik, erai-kina bera jarduera eta erabilera ezberdinez osatzen joan da aurreko legealdian zehar, gastronomia edo ikusentzunekeo jarduerak bere baitan txertatu dituelarik. Aurreko legealdian emandako Zuzendaritza Orokorren aukeraketaren bitartez eta orain denbora gutxi aukeratu-

tako Kultura zuzendaritza berriaren eskutik, proiektuak legealdi honetan bere gailurrera eramateko baldintzak betetzen ditu dudarik gabe.

Bertan dauden agenteen arteko kolaborazioak sortzen duen ekosistemak baldintza ezin hobekak eskaitzen ditu Nazioarteko Kultura Zentroa sorkuntzaren gune nagusi bilakatzeko, bere ikuspegia zabalduz eta hiritarrarekin lotura areagotuz.

Baina proiektu partekatuetaz gain, Udal bezala ardura nagusia etxean daukagun altxorra zaintzea izan behar du. Donostia Kultura hiriko kulturaren bizitzaren ardatz nagusian bihurtzeko helburuarekin estrategia eguneratzea dagokigu. Eskaintza hobetuz, sarea indartuz eta batez ere, sorkuntza eta ekoizpena sustatuz.

Ez nuke Musika eta Dantza Eskola aipatu gabe atal hau amaitu nahi. Bere jarduera auzoetara hurbiltzea izango da legealdi honetan egin beharreko esfortzu nagusia.

#### g) Hiri iraunkorra

Hiriok eginkizun garrantzitsua daukagu klima aldaketaren aurkako borrokan. Gure Hiriak ba ditu baldintzak prozesu horren abangoardian egoteko. Pauso irmoak ematea tokatzen zaigu ekonomia eta ingurumen aldetik iraunkorra izango den Hiri baterantz.

Aurreko legealdian, Hiriak hartutako konpromisoei erantzuteko asmoz, Klima DSS2050 Akzio Plana idazteari ekin genion. Akzio Plan hau garatzea eta betetzea da legealdi honetan daukagun erronka nagusia. Eta ez da erraza. Asko daukagu aldatzeko.

Me quiero detener especialmente en el tema del transporte en nuestra Ciudad. Todos somos conscientes de que si realmente queremos aspirar a cumplir los compromisos que hemos adoptado en relación a la lucha contra el cambio climático, las cosas tienen que cambiar. Y no hay cambio si seguimos haciendo lo mismo.

Estoy convencido de que estamos a las puertas de una de las mayores transformaciones que ha conocido nuestra Ciudad en los últimos años. Obras y proyectos que pronto serán obras, tales como la de la pasante del topo, la nueva estación intermodal de Riberas de Loiola o la estación del Tren de Alta Velocidad son algunas de las piezas de un puzzle que es imprescindible hacer encajar para provocar ese cambio. La apuesta por la electromovilidad es otro de los elementos fundamentales en el que debemos trabajar intensamente, siendo conscientes de que el esfuerzo económico que nos va a requerir es alto.

Pero tengámoslo claro, estos son elementos que posibilitan ese cambio, pero ese cambio va a exigir también acción y decisión. Disponemos del tiempo justo para reflexionar sobre el diseño futuro de nuestra Ciudad en aras a conseguir una movilidad sostenible. Necesitamos dar saltos cuantitativos y cualitativos en un modelo en el que el peatón y la bicicleta, junto al transporte público deben ser los protagonistas.

Cuando citaba los proyectos de Ciudad, indicaba que debíamos ser capaces de diseñar el nuevo espacio de la Ciudad en Easo para estar en condiciones de abordar su ejecución tan pronto como los trenes desaparezcan de ese ámbito. Lo mismo diría en este caso. Con nuevas y ambiciosas peatonalizaciones que limiten el acceso y la capacidad de nuestras vías a los vehículos particulares.

Se que es un tema que genera debate y polémica. Pero creo que todos somos absolutamente conscientes de que todas las Ciudades europeas se hallan inmersas en ese proceso, un proceso que es imparable y que también nosotros debemos ser capaces de abordar.

Garraioaz aritu naiz, jakinda klima aldaketaren aurkako borrokan egi-ten ditugun esfortzuak horretara zuzendu behar ditugula. Eta horrekin batera, beste esparru garrantzitsua eraikinetan eman beharreko energia transizioa izango litzateke. Zerga arloan pizgarriak eskainiz edo dirulaguntzaz bideratuz eta baita ere Plan Orokor berriaren idazketan gai hau erabat txertatuz.



### h) Hiri irisgarria, garbia eta zaindua

Bizitzeko Hiri bat, eroso, garbia eta segurua den Hiria da.

Helburu horrekin, legealdi honetan abian jarri nahi dugun ekimena irisgarritasun plana izango litzateke. Tresna honek, hurrengo urteetan esparru honetan Hiria hobetzea ekarriko du. Helburu horrekin, planean jasoko diren ekintzak gauzatu ahal izateko urtero aurrekontuetan dotazioa jartzea aurre ikusten dugu. 2020 urterako aurrekontuak jada bere baitan jasotzen du helburu honi zuzendutako kopurua.

Legealdi honetan ere garbiketan eta mantenuan dauden gabeziei aurre egitea jarri dugu helburu. Jakina da arlo hauetan eraginkorra izateko bi bide egon ohi direla: Gauzak gehiago zaintzea eta ez zikintzea edo mantenua nahiz garbiketara baliabide gehiago zuzentzea. Bi bideak dira beharrezkoak. Eta bi bideak landuko ditugu.

Adibidez, tamaina handia duten ondakinak kalean utzi beharrean, etxez etxe jasotzeko programa zabalduaz, edota ingurumen-hezkuntza eta gizarte hezkuntza sustatzeko ekimen pedagogikoak burutuaz.

Hiri eroso, zaindua eta garbia izateaz gain, Hiri segurua ere izaten jarraitu nahi dugu.

Gaur esan dezakegu gure Hiria Hiri segurua dela. Horrela da datuak aztertzen baldin baditugu behintzat. Gure inguruari erreparatzen badiogu, atal honetan ere gure Hiriak zenbaki hobeak eskaintzen dizkigu segurtasunari dagokionean. Baina gai honekin ere lan gehiago egin dezakegulakoan gaude, eta gure Hiriaren segurtasuna hobetzea dugu helburu.

Ertzaintzarekin koordinazioa eta elkarlana areagotuz, teknologia berriek eskaintzen dizkiguten aukerak baliatuz, hiritarrengandik gertuago lan eginez eta delitu mota berriek eskatzen duten trebakuntza landuz.

Udaltzaingoari dagokionean, argi dago une honetan daukagun lehen-tasuna plantilla osatzea eta egonkortzea dela. Horretara bideratu ditugu esfortzu guztiak.

Azkenik, eta baita Hiri segurua lortzeko helburu horretan ere, Babes Zibilaren arloan Udal Emergentsia plana berritzea dagokigu legealdi honetan.

### *i) Oreka eta lurralde kohesioa*

Ardatz honek eskatzen diguna da Hirian egiten diren aktuzioak lurralde ikuspegitik orekatuak izatea, eta gainera, Udalak inbertsio bitartez bideratu ditzazkeen hobekuntzak oreka hori bilatzera zuzentzea.

Ezbairik gabe, azken urteotan egindako inbertsioei erreparatzen badiegu (eta baita une honetan egiten ari direnak eta programatuak dauzkagunak), esfortzuaren pisu handiena beharrik handiena duten auzoetara bideratu da.

La zona este de la Ciudad y las riberas del Urumea han sido y son, sin duda los dos ámbitos en los que se ha concentrado el esfuerzo inversor del Ayuntamiento durante estos últimos años.

El ensanchamiento del río, la sustitución de puentes, la promoción de nuevas viviendas, las próxima bulevarización de la travesía de Loiola, una vez ejecutada por ETS la nueva estación, son ejemplos de la profunda transformación que está sufriendo esta zona de la Ciudad. Transformación que será completada en los próximos años con la finalización del ensanchamiento del cauce del río y los desarrollos de vivienda previstos. Todo ello con la implantación de equipamientos en el nuevo Txomin Enea. Sin duda, este avance imparable deja cada vez más en evidencia la necesidad de contar con el espacio que en este momento ocupan los cuarteles de Loiola.

En lo que a la zona este se refiere, empezando con la transformación del barrio de Herrera de la mano de los nuevos espacios públicos pasando por la construcción del nuevo polideportivo de Altza y la mejora de todo el entorno, así como la actuación de mejora en movilidad vertical, podemos afirmar que el esfuerzo realizado por el Ayuntamiento y otras instituciones en los últimos años está empezando a dar sus frutos. Y también de cara a futuro. Sin duda, el traslado de la actividad industrial que queda en Jolastokieta, nos permitirá en los próximos años continuar con la profunda transformación de esta zona del municipio.

Ba daude beste hainbat proiektu eta ekimen, hirian zehar kokatuak, bai mugikortasun bertikalari dagozkionak eta baita hobekuntza urbanoari dagozkionak, baina ba da bereziki aipatu nahiko nukeen auzo bat: Amara auzoa. Aurreko legealdian jada aipatzen genuen beharrezkoa zela auzo honen berpiztea ahalbidetuko duen plangintza lantzea. Lan hori partehartze atalaren eskutik burutu zen aurreko legealdian, eta bertan jasotako hainbat ekimen exekutatzeko ari dira, adibidez, Antso Jakitunaren Hiribidearen birmoldatzea, edo beste batzuek, exekutatzen hasteko prest dauzkagu, Isabel II.aren urbanizazio berria besteak beste.

Uste dut, hurrengo urteetan, plangintza honi gogoz ekitea dagokigula, eta dauzkagun bailabideak helburu honetara zuzentzen joan behar garela, aurretik aipatu ditudan inbertsioen amaierak ahalbidetzen diguten heinean.

### j) Hiri Osasuntsua

Hiri osasuntsua eta hiritar osasuntsuak izatearen aldeko apustua egiten dugu. Eta dudarik gabe, helburu hori lortzeko orduan, kirola dugu tresna nagusienetarikoa. Gure Hiria eredugarri da horretan, baina lanean jarraitu beharra daukagu, horretan ere hobetzeko asmoz.

Kirolak gure Hirian duen arrakastaren gakoetako bat Hiriak dituen kirol instalazioak dira. Beti izaten dugu gehiago eskatzeko joera, baino uste

dut aitortu beharra daukagula leku gutxitan topatu daitekeela gure Hiriak duen kirol instalazio kopurua eta maila. Hirian zehar banatuak gainera. Horiek hobetzen eta zaintzen lana daukagu. Eta baita ere beharrezkoak diren kirol instalazio berriak eraikitzen, aipatutako Alzako kiroldegiaz gain, adibidez, Hockey zelai berria zubietan, Anoetako estadio txiki berria edo Merkearreko futbol zelai berria.

Ez nuke sahiestu nahi hauteskunde garaian eta gerora ateratako, Anoetan balio anitzeko instalazio berria eraikitzearen gaia. Dudarik gabe, hori ere beharra delakoan nago. Baina Hiriak bakarrik ezin dio horri ere aurre egin. Aldundiarekin gaia lantzeko mahaia eratu, eta bertan aukera ezberdinak aztertzeari ekin nahi diogu, guztiontzako aukera onena izan daitekeena burutzeko asmoz.

Gogoeta horretan, dudarik gabe, Illunberen inguruan dauzkagun kezka eta proposamenak mahai gainean jarriko ditugu, egiten denarekin bateragarria izan dadin.

Pero además de la instalaciones deportivas, creo que otra de las claves que puede ayudar al fomento de la práctica deportiva en nuestra Ciudad es la mejora y ampliación de los servicios que ofrece la Kirol txartela, algo que ya venimos haciendo desde la anterior legislatura y que vamos a seguir haciendo en esta.

Y finalmente, no quiero dejar pasar este punto sin mencionar algo que, gracias al esfuerzo de muchas personas y entidades está sucediendo en Donostia: Somos referente en lo que a deporte femenino se refiere. Y queremos serlo más. Apoyando con fuerza y con recursos el deporte femenino en nuestra Ciudad, caminando también en este ámbito hacia la efectiva igualdad entre mujeres y hombres.

#### k) Gobernu ona

Azken ardatz hau, aurretik aipatutako ardatz guztietan arrakasta izateko baldintza da zalantzarik gabe.

Nuestro Ayuntamiento ha de ser un Ayuntamiento comprometido con los principios de servicio al ciudadano, transparencia y accesibilidad. La modernización administrativa es un eje de acción central, mediante el que debemos ser capaces de mejorar los servicios a los y las donostiarros. Queremos adaptar la administración municipal a los estándares de calidad del siglo XXI, incorporando los avances tecnológicos existentes que permitan una relación más fluida y ágil con la ciudadanía.

Y esto exige esfuerzo, tiempo y recursos económicos. No sólo buena voluntad. Iniciamos este proceso durante la última legislatura, de la mano de un plan de equipamientos que busca la mejora de los servicios que presta el Ayuntamiento, plan que continuará su desarrollo a lo largo de la presente legislatura.

Pero más allá de los equipamientos, queremos seguir modernizando y mejorando procesos. Dar un nuevo impulso a la atención ciudadana continuando con la implantación del nuevo Udalinfo, como servicio de atención integral al ciudadano.

Eta hori guztia posible egiteko, erakundearen antolakuntzan aldaketak egin ditugu. Garrantzitsuena Koordinatzaile Orokorren sorrera izanda. Figura berri honek, Udaletxeak departamentuka aritzeko duen jorra gainditu eta jarduteko modu berri bat ezarri nahi du, modu zeharkakoan, proiektuka lan eginez. Aldaketa handi baten atarian gaudela azpimarratu nahiko nuke, Udaletxearen funtzionatzeko moduan bide berri bat irekiko duena.

Azkenik, azpimarratu nahi dudana beste aldaketa garrantzitsu bat suertatu da Udalaren antolakuntzan, bete betean Gobernu onaren helburuak lortzea bilatzen duen aldaketa: Herri partaidetza zerbitzua Lehendakaritza arloan kokatzearena. Zalantzarik gabe, aldaketa hau forma aldaketa baino askoz haratago dijoan aldaketa da, erabat zeharkakoa den Departamentu batetan kokatzerakoan, partaidetzak Udalaren ekimen guztiak modu eraginkorrean bustitzea bilatzen baitu.

#### **4.- 2020 urterako aurrekontuaren ildo nagusiak**

Asteartean Gobernu Batzordeak 2020rako aurrekontuak onartu berri ditu. Aurretik aipatutako ardatz guzti hauek gauzatzeko tresna nagusienetakoa izango dena. Orain, taldeek aztertu eta zuzenketak egiteko epea irekiko da, Abenduan onartuak izan daitezzen.

Lehenik eta behin, Udal Gobernuak duen jarrera irekia azpimarratu nahi dut, zabalduko den eztabaida prozesuan egingo diren proposamenak aztertzeko, eta baita negoziatzeko ere.

Baina jakina, hori guztia Udalak dituen ahalmenen mugaren barruan. Ogasun aldetik, egoera onean dagoen Udaletxea daukagu. Diru sarre-rak sortzeko gaitasuna duena eta zorpetze maila baxua duena. Eta hori, horrela izaten jarraitzea nahi dugu.

Aurrekontu proiektuak horixe hartzen du kontutan. 2020ko aurrekontu kontsolidatua (udal elkarte eta sozietateak kontuan hartuta) 2019koa baino %7,5 txikiagoa izango da, eta ondorioz, 432.540.636 eurokoa izango da.

Aurtengoa baino txikiagoa da, aurten aurrera eramaten ari diren zenbait inbertsiok gailurra jo dutelako eta datorren urtean ez dutelako hainbesteko eraginik izango. Udalak eskaintzen dituen zerbitzuei dagokionean, hor ez dago beherakadarik. Alderantziz, zerbitzu horiek hobetzen jarraitzeko bideari ekiten diote eta igokuntzekin baieztatu daiteke hori.

Aipatzearren, gizarte-gastua indartzeko konpromisoarekin jarraitzen dute aurrekontu hauek. Hortaz, Udalak 31,7 milioi euro bideratuko ditu gizarte-babesa eta sustapenarekin lotura duten aurrekontu-sailletara, hau da, 2019an baino %3 gehiago. Igoera honekin, eta kontutan hartzen baldin badugu aurrekontuaren zenbaki osoa baxuagoa dela, sail honek bere pixu erlatiboa nabarmen handitzen du datorren urtera begira.

Gobernu programan aurre ikusten diren proiektu eta egitasmoek aurrekontuetan bere isla daukate, eta beraz, abian daudenak bukatzeko aukera emango digute (Adibidez, Altzako kiroldegia, igerileku eta ingurunean barne) eta berriak hasteko aukera eskainiko digute (Loiolako boulebarizazioa edo Iztuetako zubia kasuan).

Aurrekontuei eskeinitako atal honetan aipamen orokor bat egin nahiko nuke ere, kontutan hartu dezagun:

Ya he señalado que tenemos una Institución que presenta una situación económica equilibrada y solvente. Y creo que así debe seguir siendo, lo cual nos exige hacer un ejercicio permanente de rigor presupuestario. El fortalecimiento del área financiera con la incorporación de una nueva Dirección va precisamente en esa dirección.

Vemos una evolución de incremento del gasto corriente. Por una parte por la ya señalada mejora de los servicios que presta el Ayuntamiento y por otra, por la actualización de las retribuciones de los trabajadores municipales después de muchos años de congelación. Era necesario que se produjera una recuperación del poder adquisitivo perdido después de los años de crisis que hemos sufrido y las consecuencias que hemos padecido, algo que, en parte, ya se ha producido en este ejercicio. Esa recuperación también se contempla para el ejercicio 2020. Los incrementos retributivos son incrementos que superan las evoluciones actuales del IPC, lo cual es lógico, puesto de lo contrario no se produciría dicha recuperación del poder adquisitivo.

Sin embargo, en lo que a ingresos corrientes se refiere, los incrementos de los impuestos propios del Ayuntamiento son inferiores. Esta es una situación que a medio plazo tendremos que tener en cuenta, puesto que aunque en este momento no genere problemas, a futuro puede ser fuente de desequilibrios que tendríamos que evitar.

## **5.- Hiria, guztion ardura**

Amaitzera noa.

Aste emankorra izan da lau lanegun besterik ez dituen aste hau Udalletxearentzat. Aurrekontu proposamena, Gobernu programa, Gizarte Kontseiluaren eraketa eta gaur, Politika Orokorreko eztaida hau. Esan dezakegu legealdi berrian motor guztiak martxan dauzkagula jada.

50 minututan Hiriaren egoeraren azalpen bat egiten eta etorkizuneko erronkak irudikatzen saiatu naiz. Ez da gauza erraza, azken finean gaiak luze hitz egiteko aukera eskaintzen baitu. Laburbiltzen saiatzeak beti izan ohi ditu arriskuak, eta agian hemen zaudeten gainontzeko 26 zinegotziek gauzaren bat edo beste gehiago edo gutxiago azpimarratuko zenukete.

Hori da Hiritarren ordezkariak honek osatzen duen Udalbatzak eskaintzen duen aberastasuna. Gutako bakoitzak ematen duen ikuspuntuak guztiak aberasten gaitu. Azken finean, seguru nago guztiok helburu bera partekatzen dugula: Gure Hiriarentzat eta gure hiritarrentzat onena dena egiten saiatzea. Udal Gobernu honek eta nik neuk ikuspegi hori daukagu eta izango dugu gure lana aurrera eramateko orduan.

Inor ez da egi osoaren jabe, eta politikan, bizitzaren beste arlo guztietan bezala, entzuten jakitea inportantea da. Gure Hiritarrei entzutea noski, eta gure hiritarrek aukeratu dituzten ordezkari anitzak entzutea ere bai.

Somos una corporación que representa la diversidad que habita nuestro municipio. Con puntos de vista diferentes, discrepantes. Pero creo que con un objetivo compartido: Tratar de buscar siempre lo mejor para nuestra Ciudad y para nuestros ciudadanos. Sinceramente lo creo.

En el contexto político que nos está tocando vivir, y a las puertas de una nueva cita electoral (hoy se inicia la campaña electoral), creo que deberíamos seguir siendo capaces de preservar en este Ayuntamiento una forma de actuar arraigada en firmes valores democráticos, en el respeto, el diálogo y el entendimiento.



Los ciudadanos nos piden, diría yo que nos exigen, que seamos capaces de actuar y trabajar para tratar de solucionar problemas, no para crearlos. Debatiendo a fondo sobre las cuestiones que nos atañen, con madurez democrática y sin descalificaciones. Tratando de llegar a acuerdos, si es el caso dejando a un lado posiciones partidistas en aras a lograr mayores acuerdos que beneficien a la Ciudad que todos queremos. Por mi parte pienso esforzarme todo lo posible para que así sea.

Uste dut Udal honek, garai gogorak bizi ondoren, azken urteetan bizikidetzan aurrera pausoak eman dituela, eta ematen jarraitu behar duela. Hori guztion esku dagoen gauza da. Nere aldetik, hori horrela izaten jarraitzeko prestutasun osoa adierazi nahi dizuet, eta helburu horretara bideratu beharreko indarrak bideratzeko prest. Uste dut Donostiak eta donostiarrek merezi dutela.

Eskerrik asko.